# ULTZAMAKO UDALA

UDAL INFORMAZIOA
INFORMACIÓN MUNICIPAL

123. ALEA
2018 OTSAILA
Ultzamako Udalak argitaratua


# 2018 AURREKONTUAK — PRESUPUESTOS 2018

## DIRU SARRERAK / INGRESOS




| | Kontzeptua | Concepto | % | € |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Diru-laguntzak, tributazioa | Subvenciones, tributación | 40,6 | 619.246 |
| 2 | Zergak | Impuestos | 37,5 | 571.507 |
| 3 | Mendia, harrobia | Monte, cantera | 12,7 | 194.500 |
| 4 | Tasak, alokairuak | Tasas, alquileres | 6,8 | 104.700 |
| 5 | Beste batzuk (tramiteak...) | Otros (tramites...) | 2,4 | 35.096 |

## GASTUAK / GASTOS

| | Kontzeptua | Concepto | % | € |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Gastu orokorrak (ura, berogailua, eraikinak, eskola...) | Gastos generales (agua, calefacción, escuela...) | 21,5 | 328.475 |
| 2 | Langileak (soldatak, aseguruak) | Trabajadores (sueldos, seguros) | 20,1 | 306.340 |
| 3 | Obra eta konponketak | Obras y reparaciones | 14 | 212.250 |
| 4 | Haur eskola kudeaketa | Gestión escuela infantil | 6,8 | 104.500 |
| 5 | Gizarte zerb, dirulaguntzak, garraio zerbitzua | Servicios sociales, subvenciones, servicio de transporte | 6,7 | 102.000 |
| 6 | Kontzejuei bideratua | Reintegro concejos | 6,3 | 95.500 |
| 7 | Kanpo zerbitzuak (arkitektoa, asesoria, cederna...) | Servicios externos (arquitecto, asesoría, cederna...) | 5,8 | 89.320 |
| 8 | Mendia, ehiza, komunala... | Monte, caza, comunales... | 4,5 | 69.675 |
| 9 | Kultura eta euskara | Cultura y euskera | 4,3 | 66.350 |
| 10 | Bestelakoak (turismoa, baltsak, etxebizitza laguntzak...) | Otros (turismo, balsas, subvenciones vivienda...) | 4,3 | 65.637 |
| 11 | Kirola eta aisia | Deporte y ocio | 3,7 | 55.600 |
| 12 | Eskolaz kanpoko jarduerak | Actividades extraescolares | 2 | 29.400 |




**Ultzamako Udalaren 2018ko Aurrekontuak:**
**Presupuesto del Ayuntamiento de Ultzama de 2018:**
**1.525.049 €**

*Gastuetako zenbait partida azpimarragarri:*

- *Banda zabalaren obrak: 105.000€*
- *Coworking espazio bat sortzeko obrak: 44.000€*
- *Frontoi eta zentro zibikoko aparkalekuko argiteria: 6.300€*
- *Eskolaren mantenua: 12:000€*

*Algunas partidas de gastos a destacar:*

- *Obras para la llegada de la banda ancha: 105.000€*
- *Obras para crear un espacio coworking: 44.000€*
- *Alumbrado parking frontón/centro cívico: 6.300*
- *Mantenimiento de escuela: 12.000€*

Aurrekontuak osorik www.ultzama.eus helbidean edo Udaleko iragarki taulan.
Presupuestos íntegros en la página www.ultzama.eus o en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

# 2018ko URTARRILAREN 4ko BILKURA ARRUNTAREN LABURPENA

**1 Aurreko bilkurako akta irakurri eta onestea.**

2017/12/14ko akta onetsi da.

**2 Larraintzarko Benta Zentro Zibikoko garbiketa, atezaintza eta taberna zerbitzua kontratatzeko Espedienteari hasiera emateko erabakia hartzea, eta Baldintza Administratiboen Plegua eta espediente horretan aurrekusitako izapidatze eta prozedura onestea.**

Alkateak gaia azaldu eta espedientean agertzen diren dokumentuen edukia laburtu du, baita Zentro zibikoko tabernaren alokairua berriz ere lehiaketara atera behar izatearen inguruko gertaerak ere, honako argudioekin: Aurreko osoko bilkuran esan zen moduan gauza da pertsona batzuen kexak egon direla zentro zibikoko tabernara joan eta irekitze ordutegiaren barruan itxita aurkitu baitzuten; hori dela eta, alkatea eta idazkaria maizterrekin hitz egitera joan ziren arrazoia jakiteko, eta arazoa da pleguan aurreikusitako ordutegia bete behar badute ez zaiela alokairuarekin jarraitzea interesatzen, batez ere taberna arratsaldeko 21:00ak arte zabaltzearen betebeharrari dagokiona nahiz eta zentro zibikoan jarduerarik ez egon.

Gauzak horrela, idazkariak eta alkateak hainbat bilera izan zituzten maizterrekin alokairuaren baldintzen inguruan konponbide bat bilatzeko asmoz (baldintza plegua, kontratua...), baina ezinezkoa izan zen kontratua publikoa denez baldintza hauek ezin baitira orain aldatu eta bertan parte hartzeko beste pertsona interesatu batzuk egon zitezkeelako orain tabernako nahitaezko ordutegietan aldaketak egon behar zirela jakitean. Hori dela eta, azkenean egungo maizterrekin borondatez kontratua amaitzea adostu zen otsaila hasierako datarekin eta aldi berean zentro zibikoaren taberna eta garbiketaren kontratazioa berriz ateratzea, oraingo honetan baldintza plegu batekin non nahitaezko irekitzeko ordutegiak gehiago malgutu diren, nolabait adieraziz tabernaren nahitaezko irekiera 20:00ak arte baino ez dela eskatuko eta opor-aldietan itxi ahalko dela arratsaldetan jarduerarik ez badago.

Agrupacion Ultzama udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta pleguaren inguruko adierazpen batzuen edukiaren inguruan argibide batzuk egin ditu, uste baitu eskatutako ordutegi minimoari dagokionez kontrajarriak direla.

# *RESUMEN DE LA SESIÓN ORDINARIA DEL 4 DE ENERO DE 2018*

***1 Lectura y aprobación del Acta de la sesión anterior.***

*Se aprueba el acta del pleno del 14/12/2017.*

***2 Expediente de Contratación de los "Servicios de Conserjería, Limpieza y Bar del Centro Cívico "Larraintzarko-Benta" de Ultzama 2018-2022. Acuerdo de inicio del Expediente, Aprobación del Pliego de Condiciones Administrativas y la tramitación y procedimiento previsto en dicho Expediente.***

*La Alcaldesa explica el tema, y resume el contenido de los documentos que constan en el Expediente así como los hechos acaecidos que han dado lugar a que se tenga que volver a sacar a concurso el arrendamiento del Bar del Centro Cívico, en el sentido siguiente: Tal y como ya se comentó en el pasado Pleno resulta que ha habido quejas de algunas personas por el hecho de acudir al Bar del Centro Cívico dentro del horario de apertura y encontrárselo cerrado y por ello la Alcaldesa y el Secretario fueron a hablar con las personas arrendatarias para saber el motivo, resultando el problema de que a las mismas no les interesa continuar con el arrendamiento si existe la exigencia de cumplir con el horario previsto en el Pliego, sobre todo en lo que respecta a la obligación de abrir el Bar hasta las 21:00 horas de la tarde aun cuando no haya actividades en el Centro Cívico.*

*Así las cosas, el Secretario y la Alcaldesa tuvieron varias reuniones más con las arrendatarias al objeto de buscar una solución dentro de las condiciones del arrendamiento (Pliego de Condiciones, Contrato,…), más resultó imposible por cuanto que entienden que estas condiciones no se pueden variar ahora ya que el contrato es público y podría haber habido otras personas interesadas en tomar parte en el mismo en caso de saber que ahora se iban a producir estos cambios en el horario de apertura obligatoria del Bar. Por todo ello, finalmente, se acordó finalizar el contrato de manera voluntaria con las actuales arrendatarias hasta la fecha de principios de febrero y, simultáneamente, volver a sacar la contratación del servicio de limpieza y bar del Centro Cívico, esta vez con un Pliego de Condiciones en el que los horarios de apertura obligatoria se han flexibilizado más, de alguna manera, poniéndose que no se exigirá la apertura del Bar más que hasta las 20:00 horas de la tarde y que podrá cerrarse el mismo por las tardes en las que no haya actividades durante los periodos de vacaciones.*

*Toma la palabra el concejal Pérez Arregui, del*

Halaber, EH Bildu Ultzama udal taldeko Picabea zinegotziak ere uste du beste kontraesan bat dagoela ordutegi orokorra eta opor-aldiko ordutegia definitzeko moduan.

Adostasunez, erredakzio berri bat egin da, eskatutako ordutegi minimoaren gaia adierazten den pleguaren zati honekin, horrela argi gera dadin taberna arratsaldeko 20:00ak arte irekita egon behar dela, galarazi gabe opor-aldian jarduerarik ez dagoen arratsaldetan itxi ahal izatea.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Perez Arregui zinegotziak hartu du hitza eta defendatu du hautagai posibleak puntuatzeko momentuan Ultzamako bizilagunen aldeko diskriminazio positiboa egin beharko litzatekeela, Ultzama baita zentro zibikoa eraiki zuena eta honi dagozkion betebehar gehienak bere gain hartzen dituena, ekonomikoak eta beste batzuk... Era berean uste du gertatzen ahal diren (eta berez gertatzen diren) matxurak konpontzera, argiak itzaltzera, eta abarrera joateko orduan maizterraren disponibilitatea ere balioetsi beharko litzatekeela adjudikatzeko irizpide gisa, hau da, puntuak ematea bere bizilekua zentro zibikotik gertuago edo urrunago dagoen arabera .

EH Bildu Ultzama udal taldeko alkateak eta Picabea zinegotziak hartu dute hitza eta adierazi dute, apreziazio hori interesgarritzat hartu arren, ez diotela lekurik ikusten maitzerraren balioespena egiteko orduan haien ustez ez baita bidezkoa Ultzamako bizilagunei lehentasuna ematea zentro zibikoan parte hartzen duten beste udalen gainetik, eta distantzia eta disponibilitatea balioesteak aurkakoa ekartzen ahal duela, zentro zibikotik urrun bizi diren Arraizko Bentako edo Ilarregiko bizilagunak baztertzea, adibidez.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez dutenez bozketa egin da:

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.
- Abstentzioak: Oyarzun eta Perez Arregui. Botoaren zentzuan justifikatu dute lehen aipatutako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik, udalbatzak puntu hau onetsi du.

LEHENA.- Arestian aipaturiko kontratazio espedientea eta haren dokumentazioa onestea eta espedientea tramitatzea espedientean eta araudi aplikagarrian aurreikusitako prozeduraren arabera –Europar Batasunerako publizitaterik gabeko prozedura negoziatua.

*Grupo Municipal Agrupación Ultzama, el cual hace algunas aclaraciones sobre el contenido de algunas expresiones del Pliego en lo que respecta a la cuestión del horario mínimo exigido por entenderlas contradictorias entre sí.*

*Igualmente, el concejal Picabea, del Grupo Municipal EH Bildu Ultzama, entiende que también existe otra contradicción a la hora de definir cuál es el horario general y cuál es el horario en periodo de vacaciones.*

*Se da una nueva redacción, de manera consensuada, a la parte del Pliego donde se indica esta cuestión del horario mínimo exigido para que así quede claro que el Bar deberá estar abierto hasta las 20:00 horas de la tarde, sin perjuicio de que en periodo vacacional pueda cerrarse por las tardes los días en que no haya actividades.*

*Toma la palabra el concejal Pérez Arregui, del Grupo Municipal Agrupación Ultzama, el cual defiende que a la hora de la puntuación de los/as posibles candidatos/as debiera hacerse una discriminación positiva a favor de los/as habitantes de Ultzama ya que es Ultzama quien construyó el Centro Cívico y quien asume la mayoría de las obligaciones respecto al mismo, económicas y otras…. Entiende también que la circunstancia de la disponibilidad de la persona arrendataria a la hora de poder acudir para solucionar averías, apagar las luces, etc, que se pudieran producir (y que en la práctica se dan…) es una circunstancia que se debiera valorar como criterio de adjudicación, es decir, puntuar la residencia según sea más o menos cercana a la ubicación del Centro Cívico.*

*Intervienen la Alcaldesa y el Concejal Picabea, del Grupo Municipal EH Bildu Ultzama, los cuales, si bien consideran interesante esa apreciación, no le ven cabida a la hora de la valoración de la persona arrendataria ya que no consideran correcto dar primacía a los/as vecinos/as de Ultzama respecto a los del resto de ayuntamientos que participan en el Centro Cívico, y que la cuestión de valorar la distancia y la disponibilidad podría suponer lo contrario, discriminar a los habitantes de Bentas de Arraitz o de Ilarregui, por ejemplo, por cuanto que viven lejos del Centro Cívico.*

*Resultando que no hay acuerdo unánime se somete el mismo a votación.*

*- Votos a favor: Martínez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, y Aranguren.*
*- Abstenciones: Oyarzun y Pérez Arregui. Justifican el sentido de su voto por lo dicho anteriormente Ninguna.*

*Visto lo anterior la Corporación aprueba este punto.*

*PRIMERO.- Aprobar el Expediente de Contra-*

BIGARREN.- Lan/zerbitzuen iraupena (urte bat luzagarria gehienez lau urtez) eta kontzeptu horri dagokion gastua onestea, 2018. urtean 11.500 euro gehi dagokion BEZa.

HIRUGARREN.- Erabaki hau Odietako, Atezko eta Lanzko udalei jakinaraztea.

**3 Hiri jarduerako Plan Berezia Iraizozko UE-01 unitatean, Jose Ramón Barberena Muguirok sustatua. Espedientea hasiera batez onestea, eta bidezko erabakiak hartzea.**

Alkateak gaia azaldu du eta espedientean agertzen diren dokumentuen edukia laburtu du.

Jarraian, zalantza bat baiezko batekin argitu da, kontzejuan dagoen bidearen inguruan, ea exekuzio unitate eremuaren barruan sartzen ote den: bide hori eremuaren barruan dago birpartzelazio eta urbanizazio prozesuaren ondorioz, etxebizitza berrietarako sarbideko kale bihurtuko baita eta Udalaren titulartasunean geratuko da.

Aho batez onetsi da.

LEHENA.- Espedientea hasiera batez onestea.

BIGARREN.- Espedientearen tramitazioari ekitea.

**4 Alkatetzaren informazioak.**

Ez dago alkatetzaren informaziorik.

**5 Exekutiboaren kontrola: Aintzat hartzea Alkatetzaren 2017ko 231.ebazpenetik 250. era.**

Kontuan hartu dira goian aipaturiko alkatetzaren ebapenak.

**6 Eskaerak eta galderak.**

Ez da eskaera edo galderarik izan.

**Akta osoa irakurtzeko honako helbidera jo edo Udaleko harreran ere ikusgai:**
**www.ultzama.eus**
**Udaleko eguneroko informazioa izateko:**
**www.facebook/ultzamakoudala**

*tación arriba referido así como la documentación contenida en el mismo y proceder a su tramitación según el procedimiento previsto en dicho Expediente - Negociado Sin Publicidad Comunitaria - y así mismo en la Normativa aplicable.*

*SEGUNDO.- Aprobar la duración de dichos trabajos/servicios (un año prorrogable hasta un máximo de cuatro) y el gasto correspondiente al pago por dicho concepto, en el ejercicio 2018, 11.500 euros más el correspondiente IVA.*

*TERCERO.- Dar traslado del presente Acuerdo a los Ayuntamientos de Odieta, Atez, y Lantz.*

***3 Plan Especial de Actuación Urbana en la U.E.-01 de Iraizotz, promovido por Jose Ramón Barberena Muguiro. Aprobación Inicial del Expediente y demás acuerdos que procedan.***

*La Alcaldesa explica el tema y resume el contenido de los documentos que constan en el Expediente.*

*Seguidamente se resuelve una duda existente sobre si el camino existente en el Concejo se incluye también dentro del ámbito de la Unidad de Ejecución en sentido afirmativo: se incluye dicho camino ya que como resultado del proceso de reparcelación y urbanización se convertirá en la calle de acceso a las nuevas viviendas y quedará como titularidad del Ayuntamiento.*

*SE ACUERDA por unanimidad.*

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente el Expediente.*

*SEGUNDO.- Proceder a la tramitación del Expediente.*

***4 Informaciones de Alcaldía.***

*No se realizan informaciones de Alcaldía.*

***5 Control del Ejecutivo: Toma en cuenta de las Resoluciones de Alcaldía números 231 a la 250 del 2017.***

*Se procede la toma en cuenta de las Resoluciones de Alcaldía.*

***6 Ruegos y preguntas.***

*No se producen ruegos ni preguntas.*

***Para leer el acta en su totalidad está disponible en la recepción del Ayuntamiento o en la Web:***
***www.ultzama.eus***
***Información diaria del Ayuntamiento en:***
***www.facebook/ultzamakoudala***